

11 HIE.- KIROLDEGIA

I.- AZALERA

33.130 m²

II.- ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Kirol instalazio guztiak berriro egituratzea, oraingo eraikuntzak eraberrituz. Gainera, nabarmen handitzea aurreikusi beharko da, antzemandako premiei erantzuteko moduan. Udal izaerako ekipamendua denez, eta kirol jarduerak bertan biltzen direnez, erabaki bereziak onartuko dira eraikuntza planteamenduetan. Eremua oso-osoko antolamendua erregulatuko duen Plan Berezia erredaktatu beharko da.

III.- EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA

1.- Antolamendu / Kalifikazio orokorra

1.1.- "G.- Komunitatearen ekipamendua" zona

A.- Zonaren azalera osoa (SO):32.739 m²

B.- Eraikuntza baldintzak:

a) Hirigintza eraikigarritasuna

Oraingo parametroak finkatuko dira, oraingo eraikuntza eraberrituz.
Instalazioak handitu egingo dira, guztira 5.000 m²(t) izan arte.

b) Eraikuntzaren eitea erregulatzeko parametroak

* Eraikuntzaren profila:

Egingo diren handitze lanetan III/II profila onartuko da; eta zati batean, beste solairu bat eransteko aukera emango da.

* Eraikuntzaren altuera:

Arau orokorrak aplikatuko dira.

C.- Erabilera baldintzak:

Komunitatearen ekipamendua, kirol arlokoa. Dena den, erabilera nagusiarekin bateragarriak izan daitezkeen bestelako jarduerak onartuko dira.

1.2.- Bide sistema orokorra "SO, B"

A.- Zonaren azalera osoa (SO):391 m²

B.- Eraikitze baldintza orokorrak: ez dira aurreikusi

C.- Erabilera baldintzak: zona osoari dagozkionak

2.- Hirigintza sailkapena

LURZORU HIRITARRA

3.- Antolamendu orokorra garatzeko erregimena

Eremua oso-osorik antolatuko duen Plan Berezia.

4.- Programatzeko eta gauzatzeko erregimen orokorra

A.- Programazio orokorrerako erregimena

Udal barruti osoan jardungo da, kirol eremu handi hori integratuz eta garatuz.

B.- Garapen plangintza egiteko eta onartzeko epeak

Plan Orokorra behin betiko onartzen denean, Plan Berezia erredaktatuko da.

C.- Sistema orokor publikoak eskuratzeko, gauzatzeko eta ordaintzeko erregimena.

Behar diren obrak Udalak kudeatuko ditu, bidezko diru-laguntzez baliatuz.

IV.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEKATUA

1.- Antolamendu / Kalifikazio xehekatua

A.- Zonakatze xehekatua mugatzeko baldintzak

Baldintza horiek, "Zonakatze Xehekatua" planoan ezarritakoak izango dira.

* e.1- Bide komunikazioko sareak391 m²

* g.- Komunitatearen ekipamendua, -kirol arlokoa-32.739 m²

B.- Antolatu diren lurzatiaren eraikigarritasun eta erabilera baldintzak

* Dauden eraikinak finkatuko dira, baina betiere, eraberritu eta eguneratu egin beharko dira.

* Kirol ekipamendua handitzea: Instalazioak handitu egingo dira, guztira 5.000 m²(t) izan arte.

C.- Lurzatiaren eraikuntzaren eitea erregulatzeko baldintzak

Erredaktatu beharreko plangintza xehekatuan aztertuko dira.

D.- Jabari baldintza bereziak

Jabari baldintzei dagokienez, "Zonakatze xehekatua" planoan ezarritakora jo da. Dena den, "g" lurzatiak hartzen duen eremu osoa jabari publikokoa izango da.

E.- Eraikin eta elementu bereziak katalogatzeko baldintzak

Horrelakorik ez dago.

2.- Lurzoru hiritarraren kategoria banaketa

Lurzoru hiritar finkatua.

V.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

Gai honi dagokionez, oro har, Plan Orokor honen "B. Hirigintza arauak. Arau orokorrak" eta "F. Ingurumen iraunkortasunaren txostena" dokumentuetan ezarritakora joko da.

Zehazki, "C.10 Area akustikoak" baldintzatzailea izango da, besteak beste, eremu honetan eragingo duena. Baldintzatzaile hori arautzeko irizpideak aplikatuko dira.

VI.- PROIEKTUA GAUZATZEKO ERREGIMEN BEREZIA

1.- Hirigintza erregimena

Plan Bereziak zehazten dituen urbanizatzeko lan osagarriak.

2.- Antolamenduz kanpoko eraikinak

Horrelakorik ez dago.

3.- Plana gauzatzeko lege zein hirigintza arloko erregimena.

3.1.- Jarduteko baldintzak

Zuzkidura publikoak gauzatzeko jarduketak:

* Kirol instalazioak handitzea eta eraberritzea.

* Sistema orokorreko zuzkidura publikoak gauzatzeko jarduketa: 11 GPA, 33.130 m²-ko azalera duena

3.2.- Erabileren haztapen koefizienteak

3.3.- Urbanizatzeko zamak identifikatu, gauzatu eta ordaintzeko baldintzak

Lanak Udalaren kontura gauzatzeko dira, eta bidezko diru-laguntzak honek kudeatu beharko ditu.

